




Azalera handietako salmentak %0,3 murriztu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko urtarriletik abendura




Iturria: Eustat.

Azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %0,3 murriztu ziren abenduan. Jaitsiera hori gertatu bazen ere, 2023. urtean salmentek gehikuntza txiki bat lortu zuten, %0,2koa. Era berean, enpleguak hazkundeak erakusten jarraitu zuen urte osoan zehar.

Txikizkako merkataritzaren salmenta %3,0 hazi zen

Txikizkako merkataritza EAEn
Urte bakoitzeko urtarriletik abendura



Iturria: INE.

INEk argitaratu berri duen informazioaren arabera, **txikizkako merkataritzak %3,0ko hazkundera izan zuen abenduan.** Halaber, salmenten hazkunde horrekin batera, enpleguak %0,2ko gorakada txikia lortu zuen. 2023 osoan, salmenten igotera %4,3 izan zen eta enpleguarena, berriz, % 1,3.



Estatuko KPIa %3,4an kokatu da urtarrilean



Iturria: INE.

Estatuko KPIaren adierazle aurreratua %3,4koa izan zen urtearen hasieran, abenduan erregistratutako tasa baino hiru hamarren altuagoa. Bilakaera hori elektrizitatearen prezioen igoeraren ondorio izan zen batez ere, 2023ko urtarrilean jaitsi zen bitartean. Aitzitik, erregaien prezioek behera egin zuten, aurreko urtean gora egin ondoren.

Afiliazioa Euskadin %1,9 gehitu zen urtarrilean



Iturria: Gizarte Segurantza.

Urtarrilean, Gizarte Segurantzako afiliazioak %1,9 egin zuten gora EAEn, aurreko urteko hileko beraren aldean. Hazkunde horri esker, 1.000.000 afiliazioko langa gaudituz, urtarril batean serie historiko osoan lortutako erregistrorik handiena baita.